Batzorde horretan koordinatuko da langileen politika, alegia, Estatuko Administrazio Orokorreko, autonomia-erkidegoen administrazioetako, Ceuta eta Melilla hirietako eta toki-erakundeetako politikak; Batzordeak, zehatz-mehatz, zeregin hauek bete behar ditu:

a) Enplegu publikora iristeko orduan, printzipio konstituzionalak errespetatuko direla bermatzeko sustatu beharreko jardun guztiak sustatu behar ditu.

b) Enplegu publikoaren arloan onartzekoa den oinarriko legeriaren proiektuak aztertu eta analizatu behar ditu, eta administrazio publikoek aurkezten dioten beste edozein arau-proiekturi buruz txostena egin behar du.

c) Enplegu publikoari buruz ikerketak eta txostenak egin behar ditu.

Egindako ikerketa eta txosten horiek administrazio publikoetako negoziazio-mahai orokorrean partaide diren erakunde sindikalei igorriko zaizkie.

3. Enplegu Publikoa Koordinatzeko Batzordearen partaide izango dira, batetik, Estatuko Administrazio Orokorrean, autonomia-erkidegoen administrazioetan eta Ceuta eta Melilla hirietan giza baliabideei buruzko politikan diharduten zuzendaritza-organoetako titullarrak, eta, bestetik, toki-administrazio ordezkariek, Espainiako Probintzien eta Udalerrien Federazioak izendatutakoak, toki-erakundeen elkarre horrek baitu estatu osoan zabalkunderik handiena, betiere, erregelamenduz ezarriko den eran eta autonomia-erkidegoei aurretiaz kontsulta eginda.

4. Enplegu Publikoa Koordinatzeko Batzordeak funtzionamendu eta antolamendurako bere arauak ezarriko ditu.

Lehenengo xedapen gehigarria. Berariazko aplikazio-eremua.

Estatuko, erkidegoetako eta tokian tokiko sektore publikoan diharduten erakundeek, estatutu honetako 2. artikuluan sartuta ez badaude eta berariaz duten arautegian hala definituta badaude, 52., 53., 54., 55. eta 59. artikuluetan jasotako printzipioak aplikatu behar dituzte.

funcionamiento y organización a lo establecido en la vigente legislación sobre régimen jurídico de las Administraciones Públicas.

2. Se crea la Comisión de Coordinación del Empleo Público como órgano técnico y de trabajo dependiente de la Conferencia Sectorial de Administración Pública.

En esta Comisión se hará efectiva la coordinación de la política de personal entre la Administración General del Estado, las Administraciones de las comunidades autónomas y de las ciudades de Ceuta y Melilla, y las entidades locales y en concreto le corresponde:

a) Impulsar las actuaciones necesarias para garantizar la efectividad de los principios constitucionales en el acceso al empleo público.

b) Estudiar y analizar los proyectos de legislación básica en materia de empleo público, así como emitir informe sobre cualquier otro proyecto normativo que las Administraciones Públicas le presenten.

c) Elaborar estudios e informes sobre el empleo público.

Dichos estudios e informes se remitirán a las organizaciones sindicales presentes en la Mesa General de Negociación de las Administraciones Públicas.

3. Componen la Comisión de Coordinación del Empleo Público los titulares de aquellos órganos directivos de la política de recursos humanos de la Administración General del Estado, de las Administraciones de las comunidades autónomas y de las ciudades de Ceuta y Melilla, y los representantes de la Administración Local designados por la Federación Española de Municipios y Provincias, como asociación de entidades locales de ámbito estatal con mayor implantación, en los términos que se determinen reglamentariamente, previa consulta con las comunidades autónomas.

4. La Comisión de Coordinación del Empleo Público elaborará sus propias normas de organización y funcionamiento.

Disposición adicional primera. Ámbito específico de aplicación.

Los principios contenidos en los artículos 52, 53, 54, 55 y 59 serán de aplicación en las entidades del sector público estatal, autonómico y local, que no estén incluidas en el artículo 2 del presente Estatuto y que estén definidas así en su normativa específica.



Bigarren xedapen gehigarria. Estatutu honetako xedapenak foru-erakundeetan aplikatzea.

1. Estatutu hau Nafarroako Foru Erkidegoari aplikatuko zaio, Konstituzioaren 149.1.18.a artikuluan eta lehen xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera eta Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoan ezarritakoari jarraituz.

2. Estatutu hau Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan aplikatuko da, Konstituzioaren lehendabiziko xedapen gehigarria, Konstituzioaren 149.1.18.a artikulua eta Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutua onesteko zen abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoa oinarri hartuta.

Estatu osorako gaitzaren funtzionarioei dagokienez, apirilaren 7ko 7/1985 Legearen 92 bis artikuluan jasota dauden eskumenak tokian tokiko lurralde historikoetako foru-erakundeek edo autonomia-erkidegoko instituzio erkideek izango dituzte beren esku, autonomia-erkidegoko arautegiak ezarritakoaren arabera.

Hirugarren xedapen gehigarria. Ceuta eta Melilla hiriek dituzten funtzionario publikoak.

1. Ceuta eta Melilla hirietako administrazioek dituzten funtzionario publikoak arautzeko orduan, oinarri izango dira estatutu honetan ezarritakoa, estatutua garatzeko hango biltzarrek beren estatutuen esparruaren barruan onets ditzaketen erregelamenduzko arauak, estatutua garatzeko Estatuak eman ditzakeen arauak eta Estatu Administrazio Orokorraren Funtzio Publikoa arautzeko Legea.

2. Aurreko zenbakian ezarritakoaren ildotik, Ceuta eta Melillako biltzarrek, aurrekoez gain, honako eginkizun hauek ere izango dituzte:

a) Funtzionarioen eskalak, azpieskalak eta klaseak sortzea, aldatzea eta ezabatzea, eta funtzionarioak multzotan sailkatzea.

b) Lanpostuen zerrendak eta plantillak onartzea.

c) Zuzendaritzako postuak betetzeko prozedura erregulatzea, eta postu horietan jarraitzeko edo postutik kentzeko araubidea zehaztea.

d) Diziiplina-falta eta zehapen arinak zehaztea.

3. Funtzionario transferituak arautzeko orduan, Estatu Administrazio Orokorraren Funtzio Publikoa arautzeko Legea eta lege hori garatzeko arauak izango dira oinarri.

Disposición adicional segunda. Aplicación de las disposiciones de este Estatuto a las Instituciones Forales.

1. El presente Estatuto se aplicará a la Comunidad Foral de Navarra en los términos establecidos en el artículo 149.1.18.^a y disposición adicional primera de la Constitución, y en la Ley Orgánica 13/1982, de 10 de agosto, de Reintegración y Amejoramiento del Régimen Foral de Navarra.

2. En el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco el presente Estatuto se aplicará de conformidad con la disposición adicional primera de la Constitución, con el artículo 149.1.18.^a de la Constitución y con la Ley Orgánica 3/1979, de 18 de diciembre, por la que se aprueba el Estatuto de Autonomía para el País Vasco.

Las facultades previstas en el artículo 92 bis de la Ley 7/1985, de 7 de abril, respecto a los funcionarios con habilitación de carácter nacional serán ostentadas por las Instituciones Forales de sus territorios históricos o por las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma, en los términos que establezca la normativa autonómica.

Disposición adicional tercera. Funcionarios públicos propios de las ciudades de Ceuta y Melilla.

1. Los funcionarios públicos propios de las administraciones de las ciudades de Ceuta y Melilla se rigen por lo dispuesto en este Estatuto, por las normas de carácter reglamentario que en su desarrollo puedan aprobar sus Asambleas en el marco de sus estatutos respectivos, por las normas que en su desarrollo pueda dictar el Estado y por la Ley de Función Pública de la Administración General del Estado.

2. En el marco de lo previsto en el número anterior, las Asambleas de Ceuta y Melilla tendrán, además, las siguientes funciones:

a) El establecimiento, modificación y supresión de Escalas, Subescalas y clases de funcionarios, y la clasificación de los mismos.

b) La aprobación de las plantillas y relaciones de puestos de trabajo.

c) La regulación del procedimiento de provisión de puestos directivos así como su régimen de permanencia y cese.

d) La determinación de las faltas y sanciones disciplinarias leves.

3. Los funcionarios transferidos se registrarán por la Ley de Función Pública de la Administración General del Estado y sus normas de desarrollo.



Nolanahi den ere, transferituta daudeneko hiriko funtzionario gisa integratu ahal izango dira, eta beste administrazio publiko batzuen zerbitzuko administrazio-egoeran egongo dira.

Laugarren xedapen gehigarria. Estatutu hau estatu-eremuko administrazio-agintari independenteei aplikatzea.

Estatutu honetan xedatutakoa aplikatu egingo zaie estatu-eremuko administrazio-agintari independenteei, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko Legearen (urriaren 1eko 40/2015) 109. eta 110. artikuluetan araututako zuzenbide publikoko erakundeei alegia, horiek sortzeko legeetan aurreikusitako moduan.

Bosgarren xedapen gehigarria. Funtzionarioen erretiroa.

Funtzionarioak erretiroa hartzeko araubideei buruzko azterketa aurkeztuko du Gobernuak Diputatuen Kongresuan, eta horren barruan jasota egongo dira, besteak beste, antzeko ezaugarriak dituzten kolektiboen artean diskriminaziorik gertatuko ez dela bermatzeko aholkuak eta kolektibo jakin batzuetan erretiroa lehenago hartzeko aukera zabaltzeko egokitasuna.

Seigarren xedapen gehigarria. Titulaziorik behar ez duten beste lanbide-talde batzuk.

1. Administrazio publikoek, estatutu honetako 76. artikuluan ezarritako sailkapen-taldeen gain, aurrekoen bestelako lanbide-talde batzuk ere ezarri ahal izango ditu, horietara iristeko hezkuntza-sisteman jasota dauden titulazioetatik bat ere eskatzen ez dutenak.

2. Lanbide-talde hauetakoak diren funtzionarioek, eskatzen zaien titulazioa eskuratzen dutenean, estatutu honen 18. artikuluan ezarritakoaren arabera, euren buruak sustatzeko aukera izango dute.

Zazpigarren xedapen gehigarria. Berdintasun-planak.

1. Administrazio publikoek tratu- eta aukera-berdintasuna errespetatu behar dute nahitaez laneko eremuan, eta, helburu hori betetzeko, hartu beharreko neurriak hartu behar dituzte emakumeen eta gizonen artean inolako diskriminaziorik izan ez dadin.

2. Aurreko zenbakian ezarritakoari kalterik egin gabe, administrazio publikoek berdintasun-plana egin eta aplikatu beharko dute, hitzarmen kolektiboan edo funtzionarioentzat erabiltzeko

No obstante, podrán integrarse como funcionarios propios de la ciudad a la que hayan sido transferidos quedando en la situación administrativa de servicio en otras administraciones públicas.

Disposición adicional cuarta. Aplicación de este Estatuto a las autoridades administrativas independientes de ámbito estatal.

Lo establecido en el presente Estatuto se aplicará a las autoridades administrativas independientes del ámbito estatal, Entidades de Derecho Público reguladas en los artículos 109 y 110 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, en la forma prevista en sus leyes de creación.

Disposición adicional quinta. Jubilación de los funcionarios.

El Gobierno presentará en el Congreso de los Diputados un estudio sobre los distintos regímenes de acceso a la jubilación de los funcionarios que contenga, entre otros aspectos, recomendaciones para asegurar la no discriminación entre colectivos con características similares y la conveniencia de ampliar la posibilidad de acceder a la jubilación anticipada de determinados colectivos.

Disposición adicional sexta. Otras agrupaciones profesionales sin requisito de titulación.

1. Además de los Grupos clasificatorios establecidos en el artículo 76 del presente Estatuto, las Administraciones Públicas podrán establecer otras agrupaciones diferentes de las enunciadas anteriormente, para cuyo acceso no se exija estar en posesión de ninguna de las titulaciones previstas en el sistema educativo.

2. Los funcionarios que pertenezcan a estas agrupaciones cuando reúnan la titulación exigida podrán promocionar de acuerdo con lo establecido en el artículo 18 de este Estatuto.

Disposición adicional séptima. Planes de igualdad.

1. Las Administraciones Públicas están obligadas a respetar la igualdad de trato y de oportunidades en el ámbito laboral y, con esta finalidad, deberán adoptar medidas dirigidas a evitar cualquier tipo de discriminación laboral entre mujeres y hombres.

2. Sin perjuicio de lo dispuesto en el apartado anterior, las Administraciones Públicas deberán elaborar y aplicar un plan de igualdad a desarrollar en el convenio colectivo o acuerdo de condiciones



den lan-baldintzen akordioan garatzeko, betiere, planean bertan ezarritako moduan.

Zortzigarren xedapen gehigarria.

Karrerako funtzionarioek bermatuta izango dituzte, administrazio publiko bakoitzak bere legeetan ezarritakoaren arabera, lanbide-karrera egiteko sistemen barruan eskuratuta edo aitortuta dituzten eskubide ekonomikoak.

Bederatzigarren xedapen gehigarria.

Karrerako funtzionarioen lanbide-karrerak abiaburu izango ditu, gainditu beharreko hautaketa-prozesua gainditutakoan, funtzionarioari hasiera batean esleitu zaion plazari dagozkion gradua, maila, kategoria, eskaloia eta antzeko kontzeptuak; abiaburu horiek minimotzat joko dira.

Horiek abiapuntutzat hartuta hasiko da langilea gora egiten, eremuetako bakoitzean aplikatu beharreko karrera-modalitatea zein den aintzat hartuta.

Hamargarren xedapen gehigarria. Aplikazio-eremua, 87.3 artikulua.

Estatutu honetako 4. artikuluan adierazitako langileak zerbitzu berezietan edo antzeko administrazio-egoera batean daudenean, estatutu honen 87.3 artikuluan ezarritako eskubideak aplikatuko zaizkie, betiere, aplikazio hori berariazko legerian ezarritakoarekin bateragarria den heinean.

Hamaikagarren xedapen gehigarria. Administrazio zibilean zerbitzuak ematen dituzten langile militarrek.

1. Karrerako langile militarrek administrazio zibilean eman ahal izango dituzte zerbitzuak, administrazio publiko bakoitzak xedatzen duen moduan, aukera hori berariaz adierazten bada, eta, betiere, langile horiek lanpostua merezimendua eta gaitasun-printzipioen arabera esleitzen bazaie; horretarako, lanpostu horiek betetzeko kasuan kasuko deialdi publikoan parte hartu behar dute, eta Defentsa Ministerioak horretarako berariaz xedatzen dituen baldintzak bete beharko dituzte.

2. Administrazio zibilean zerbitzuak ematen dituzten langile militarrei administrazio zibil horretako araubidea ezarriko zaie lanaldiari, lan-ordutegiari, oporrei, baimenei, lizentziei eta diziplina-araubideari dagokienez; nolana ere, zerbitzuetik kentzeko zehapena Defentsako ministroak soilik jarri ahal izango du.

Ez zaie aplikatuko barne-sustapenerako, administrazio-karrerarako, administrazio-

de trabajo del personal funcionario que sea aplicable, en los términos previstos en el mismo.

Disposición adicional octava.

Los funcionarios de carrera tendrán garantizados los derechos económicos alcanzados o reconocidos en el marco de los sistemas de carrera profesional establecidos por las leyes de cada Administración Pública.

Disposición adicional novena.

La carrera profesional de los funcionarios de carrera se iniciará en el grado, nivel, categoría, escalón y otros conceptos análogos correspondientes a la plaza inicialmente asignada al funcionario tras la superación del correspondiente proceso selectivo, que tendrán la consideración de mínimos.

A partir de aquellos, se producirán los ascensos que procedan según la modalidad de carrera aplicable en cada ámbito.

Disposición adicional décima. Ámbito de aplicación del artículo 87.3.

Al personal contemplado en el artículo 4 de este Estatuto que sea declarado en servicios especiales o en situación administrativa análoga, se le aplicarán los derechos establecidos en el artículo 87.3 del presente Estatuto en la medida en que dicha aplicación resulte compatible con lo establecido en su legislación específica.

Disposición adicional undécima. Personal militar que preste servicios en la Administración civil.

1. El personal militar de carrera podrá prestar servicios en la Administración civil en los términos que establezca cada Administración Pública en aquellos puestos de trabajo en los que se especifique esta posibilidad, y de los que resulten adjudicatarios, de acuerdo con los principios de mérito y capacidad, previa participación en la correspondiente convocatoria pública para la provisión de dichos puestos, y previo cumplimiento de los requisitos que, en su caso, se puedan establecer para este fin por el Ministerio de Defensa.

2. Al personal militar que preste servicios en la Administración civil le será de aplicación la normativa propia de la misma en materia de jornada y horario de trabajo; vacaciones, permisos y licencias; y régimen disciplinario, si bien la sanción de separación del servicio sólo podrá imponerse por el Ministro de Defensa.

No les será de aplicación lo previsto para promoción interna, carrera administrativa,



egoeretarako eta mugigarritasunerako xedatutakoa; hala ere, administrazio zibilak langile horientzat zabalduetako beste lanpostu batzuk betetzeko prozeduretan parte hartu ahal izango dute.

Ordainsariei dagokienez, karrerako militar izateagatik dagozkien oinarrizko ordainsariak ez ezik, betetzen duten lanpostuari dagozkion ordainsari osagarriak ere jasoko dituzte.

Karrera militarrean gora egiteak ez du inolako aldaketarik eragingo betetzen duten lanpostuaren ordainsari-baldintzetan.

Gizarte Segurantzako erregimena, berriz, karrerako militar izateagatik dagokiena izango da.

Administrazio zibilean betetzen ari diren lanpostua uzten badute, lanpostutik kentzen badituzte edo lanpostua ezabatu egiten bada, administrazio militarrean itzuli beharko dira, dagozkien egoeran, eta ez zaizkie aplikatuko funtzionario zibilentzat egoera horietarako ezarrita dauden irizpideak.

Hamabigarren xedapen gehigarria. Eremu espezifikoetako negoziazio-mahaiak.

1. Dagozkien esparruko langile funtzionarioen edo estatutupeko langileen lan-baldintzak negoziatzeko, honako negoziazio-mahai hauek eratuko dira:

a) Unibertsitateaz kanpoko irakasleena, negoziatu beharreko gaiak Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren eskumen-eremukoak direnean.

b) Justizia Administrazioko langileena, negoziatu beharreko gaiak Justizia Ministerioaren eskumen-eremukoak direnean.

c) Osasun-zerbitzuetako estatutupeko langileena, negoziatu beharreko gaiak Osasunaren, Gizarte Zerbitzuen eta Berdintasunaren Ministerioaren eskumen-eremukoak direnean; negoziazio-mahai horrek osasun-zerbitzuetako estatutupeko langileen Esparru Estatutuko 11.4 artikuluan aurreikusitako eskumenak eta funtzioak hartuko ditu bere gain.

Mahai hori «Negoziazio-eremua» deituko da.

2. Estatuko Administrazio Orokorraren ordezkariak ez ezik, estatutu honetako 33.1 artikulua bigarren letrakadan aipatzen diren erakunde sindikalek eratuko dituzte esandako negoziazio-mahaiak; erakunde horien ordezkariak kasu bakoitzean dagozkion

situaciones administrativas y movilidad, sin perjuicio de que puedan participar en los procedimientos de provisión de otros puestos abiertos a este personal en la Administración civil.

Las retribuciones a percibir serán las retribuciones básicas que les correspondan en su condición de militares de carrera, y las complementarias correspondientes al puesto de trabajo desempeñado.

Los posibles ascensos que puedan producirse en su carrera militar no conllevarán variación alguna en las condiciones retributivas del puesto desempeñado.

Su régimen de Seguridad Social será el que les corresponda como militares de carrera.

Cuando se produzca el cese, remoción o supresión del puesto de trabajo de la Administración civil que vinieran desempeñando, deberán reincorporarse a la Administración militar en la situación que les corresponda, sin que les sean de aplicación los criterios existentes en estos supuestos para el personal funcionario civil.

Disposición adicional duodécima. Mesas de negociación en ámbitos específicos.

1. Para la negociación de las condiciones de trabajo del personal funcionario o estatutario de sus respectivos ámbitos, se constituirán las siguientes Mesas de Negociación:

a) Del personal docente no universitario, para las cuestiones que deban ser objeto de negociación comprendidas en el ámbito competencial del Ministerio de Educación, Cultura y Deporte.

b) Del personal de la Administración de Justicia, para las cuestiones que deban ser objeto de negociación comprendidas en el ámbito competencial del Ministerio de Justicia.

c) Del personal estatutario de los servicios de Salud, para las cuestiones que deban ser objeto de negociación comprendidas en el ámbito competencial del Ministerio de Sanidad, Servicios Sociales e Igualdad y que asumirá las competencias y funciones previstas en el artículo 11.4 del Estatuto Marco del personal estatutario de los servicios de salud.

Mesa que se denominará «Ámbito de Negociación».

2. Además de la representación de la Administración General del Estado, constituirán estas Mesas de Negociación, las organizaciones sindicales a las que se refiere el párrafo segundo del artículo 33.1 de este Estatuto, cuya representación se distribuirá en función de los



negoziazioaren berariazko eremuko langileen ordezkari-tza-organoetarako hauteskundeetan lortutako emaitzen arabera banatuko da; betiere, estatu-mailan lortutakoak kontuan hartuta.

Hamahirugarren xedapen gehigarria. Norberaren gauzak egiteko baimena, antzinasuna dela-eta.

Seigarren hirurtekoa betetakoan, administrazio publikoek gehienez ere bi egun gehigarri eman ahal izango dituzte norbere kontuetarako. Zortzigarrenetik aurrera betetzen den hirurteko bakoitzeko, gehienez ere beste egun bat gehitu ahal izango da.

Hamalagarren xedapen gehigarria. Opor-egun gehigarriak, antzinasuna dela-eta.

Administrazio publiko bakoitzak gehienez lau opor-egun gehigarri ezarri ahal izango ditu funtzionario publikoek betetako zerbitzu-denboraren arabera.

Hamabosgarren xedapen gehigarria. Langileen ordezkari-tza-organoen erregistroa.

Administrazio publikoek beren eta beren mendeko organismo, agentzia, unibertsitate eta erakundeen zerbitzupeko langileen ordezkari-tza-organoen erregistro bat edukiko dute. Erregistro horretan jasoko dira (inskripzio edo oharpen bidez), gutxienez, funtzionarioen –estatutudun edo langile lan-kontratudunen– ordezkari-tza-organoak sortzeari, aldatzeari edo ezabatzeari eragiten dioten egintzak, bai eta sindikatu-atalak, organo horietako kideak eta sindikatu-ordezkariak sortzeko, aldatzeko edo kentzeko egintzak ere.

Orobat, lanera joateko betebeharrean edo araubidean eragiten duten arauak edo itunak aplikatzearen ondoriozko ordu-kredituak, horien lagapenak eta sindikatu-liberazioak ere jasoko dira.

Erregistro horiek sortzeko garaian datu personalak babesteko arloan indarrean dagoen araudia bete beharko da.

Hamaseigarren xedapen gehigarria. Ordaindutako baimena haurdun dauden funtzionarioentzat.

Administrazio publiko bakoitzak, bere eremuan, ordaindutako baimena ezarri ahal izango du haurdun dauden funtzionarioentzat, haurdunaldiko 37. asteko lehen egunetik erditzen duten eguna arte.

Haurdunaldi anizkoitzetan, baimen hori haurdunaldiko 35. asteko lehen egunetik erditzeko eguna arte izan daiteke.

resultados obtenidos en las elecciones a los órganos de representación propios del personal en el ámbito específico de la negociación que en cada caso corresponda, considerados a nivel estatal.

Disposición adicional decimotercera. Permiso por asuntos particulares por antigüedad.

Las Administraciones Públicas podrán establecer hasta dos días adicionales de permiso por asuntos particulares al cumplir el sexto trienio, incrementándose, como máximo, en un día adicional por cada trienio cumplido a partir del octavo.

Disposición adicional decimocuarta. Días adicionales de vacaciones por antigüedad.

Cada Administración Pública podrá establecer hasta un máximo de cuatro días adicionales de vacaciones en función del tiempo de servicios prestados por los funcionarios públicos.

Disposición adicional decimoquinta. Registro de Órganos de Representación del Personal.

Las Administraciones Públicas dispondrán de un Registro de Órganos de Representación del Personal al servicio de las mismas y de sus organismos, agencias, universidades y entidades dependientes en el que serán objeto de inscripción o anotación, al menos, los actos adoptados en su ámbito que afecten a la creación, modificación o supresión de órganos de representación del personal funcionario, estatutario o laboral, la creación modificación o supresión de secciones sindicales, los miembros de dichos órganos y delegados sindicales.

Así mismo, serán objeto de anotación los créditos horarios, sus cesiones y liberaciones sindicales que deriven de la aplicación de normas o pactos que afecten a la obligación o al régimen de asistencia al trabajo.

La creación de dichos registros se ajustará a la normativa vigente en materia de protección de datos de carácter personal.

Disposición adicional decimosexta. Permiso retribuido para las funcionarias en estado de gestación.

Cada Administración Pública, en su ámbito, podrá establecer a las funcionarias en estado de gestación, un permiso retribuido, a partir del día primero de la semana 37 de embarazo, hasta la fecha del parto.

En el supuesto de gestación múltiple, este permiso podrá iniciarse el primer día de la semana 35 de embarazo, hasta la fecha de parto.



Lehen xedapen iragankorra. Ordainsari- eskubideak bermatzea.

1. Estatutu honek ezin izango die murrizketarik ekarri bere aplikazio-eremuan jasota dauden langileei; estatutua indarrean jarritakoan, beraz, langileentzat indarrean dagoen karrera-sistemari lotuta dauden eskubide ekonomikoen eta beste ordainsari osagarri batzuen zenbatekoa ezingo da murriztu, langileek duten administrazio-egoera edozein izanda ere.

2. Estatutu hau indarrean jarritakoan bere aplikazio-eremuan jasota dauden langileak zerbitzu aktiboko egoeran ez badaude, zerbitzu aktibora itzultzen diren unetik aurrera aitortuko zaizkie langile horiei aurreko zenbakian adierazi diren eskubide ekonomikoak eta bestelako ordainsari osagarriak.

Bigarren xedapen iragankorra. Funtzionarioentzat sailkatuta dauden eginkizunetan edo lanpostuetan diharduten langile lan-kontratudun finkoak.

Apirilaren 12ko 7/2007 Legea indarrean jartzen denean funtzionarioentzat diren eginkizunak betetzen ari diren langile lan-kontratudun finkoek edo egun hori baino lehenago deitutako hautaketa-edo sustapen-probei esker eginkizun horiek beteko dituztenek beren eginkizunak betetzen jarraitu ahal izango dute.

Era berean, langile lan-kontratudun finkoek oposizio-lehiaketaren sistemaren bidez egiten diren barne-sustapenerako hautaketa-prozesuetan parte hartu ahal izango dute, lehia askeko hautaketa-prozesuekin batera edo erabat berezita, zein eginkizun edo lanpostutan diharduten, horiei atxikita dauden kidego eta eskala horietan; betiere, beharrezkoa den titulazioaren jabe izan behar da eta eskatzen diren betekizunak errespetatu; horrez gain, merezimendu modura balioetsiko dira langile lan-kontratudun finko gisa benetan egindako zerbitzuak eta egoera horretara iristeko gainditu behar izan dituzten hautaketa-probak.

Hirugarren xedapen iragankorra. Lanbide- sailkapen berria indarrean jartzea.

1. Funtzio publikora iritsi ahal izateko, 76. artikuluan adierazitako unibertsitate-titulu berriak orokorrean ezarri bitartean, estatutu hau indarrean jartzerakoan baliagarri ziren unibertsitate-titulu ofizialak izango dira baliozkoak.

2. Aldi baterako, apirilaren 12ko 7/2007 Legea indarrean jartzean zeuden sailkapen taldeak 76. artikuluan aurrikusi diren funtzionarioen lanbide-

Disposición transitoria primera. Garantía de derechos retributivos.

1. El desarrollo del presente Estatuto no podrá comportar para el personal incluido en su ámbito de aplicación, la disminución de la cuantía de los derechos económicos y otros complementos retributivos inherentes al sistema de carrera vigente para los mismos en el momento de su entrada en vigor, cualquiera que sea la situación administrativa en que se encuentren.

2. Si el personal incluido en el ámbito de aplicación del presente Estatuto no se encontrase en la situación de servicio activo, se le reconocerán los derechos económicos y complementos retributivos a los que se refiere el apartado anterior a partir del momento en el que se produzca su reingreso al servicio activo.

Disposición transitoria segunda. Personal laboral fijo que desempeña funciones o puestos clasificados como propios de personal funcionario.

El personal laboral fijo que a la entrada en vigor de la Ley 7/2007, de 12 de abril, estuviere esté desempeñando funciones de personal funcionario, o pasare a desempeñarlos en virtud de pruebas de selección o promoción convocadas antes de dicha fecha, podrá seguir desempeñándolos.

Asimismo, podrá participar en los procesos selectivos de promoción interna convocados por el sistema de concurso-oposición, de forma independiente o conjunta con los procesos selectivos de libre concurrencia, en aquellos Cuerpos y Escalas a los que figuren adscritos las funciones o los puestos que desempeñe, siempre que posea la titulación necesaria y reúna los restantes requisitos exigidos, valorándose a estos efectos como mérito los servicios efectivos prestados como personal laboral fijo y las pruebas selectivas superadas para acceder a esta condición.

Disposición transitoria tercera. Entrada en vigor de la nueva clasificación profesional.

1. Hasta tanto no se generalice la implantación de los nuevos títulos universitarios a que se refiere el artículo 76, para el acceso a la función pública seguirán siendo válidos los títulos universitarios oficiales vigentes a la entrada en vigor de este Estatuto.

2. Transitoriamente, los Grupos de clasificación existentes a la entrada en vigor de la Ley 7/2007, de 12 de abril, Estatuto se integrarán en los Grupos de clasificación profesional de



sailkapen taldeetan sartuko dira, honako baliokidetzak hauek errespetatuta:

A taldea: A1 azpitaldea.

B taldea: A2 azpitaldea.

C taldea: C1 azpitaldea.

D taldea: C2 azpitaldea.

E taldea: Seigarren xedapen gehigarrian adierazita dauden lanbide-taldeak.

3. Eskatzen den titulazioaren jabe diren C1 azpitaldeko funtzionarioek beren burua A taldera sustatu ahal izango dute B talde berritik igaro gabe, betiere, estatutu honetako 18. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Laugarren xedapen iragankorra. Aldi baterako enplegua sendotzea.

1. Administrazio publikoek enplegua finko bihurtzeko deialdiak egin ahal izango dituzte, beren kidego, eskala edo kategoriei dagozkien lanpostu edo plaza estrukturalak betetzeko, baldin eta aurrekontu-zuzkidura badute plaza horiek, eta, 2005eko urtarrilaren 1a baino lehenagotik, bitarteko edo aldi baterako langileek betetakoak badira.

2. Hautaketa-prozesuetan ondo bermatuko da berdintasun-, merezimendu-, gaitasun- eta publizitate-printzipioak beteko direla.

3. Hautaketa-probetako edukiak zerikusia izan behar du deialdiaren xede diren lanpostuetako ohiko prozedurekin, atazekin eta eginkizunekin.

Lehiaketa-fasean, beste merezimenduekin batera, administrazio publikoetan zerbitzuan emandako denbora eta deialdiaren xede diren lanpostuetan izandako esperientzia balioetsi ahal izango dira.

Estatutu honetako 61. artikuluan 1. eta 3. zenbakietan ezarritakoaren arabera garatu behar dira hautaketa-prozesuak.

Bosgarren xedapen iragankorra. Hauteskunde-prozedura orokorra.

Estatutu honetako 39. artikuluan ezarritako hauteskunde-prozedura orokorra zehazten den bitartean, ekainaren 12ko 9/1987 Legearen (Administrazio publikoen zerbitzuan diharduten langileen ordezkari-organak, lan-baldintzak eta partaidetza arautzekoa) honako artikulua hauek oinarritzeko araudi izango dira: 13.2, 13.3, 13.4, 13.5, 13.6, 15., 16., 17., 18., 20., 21., 25., 26., 27., 28. eta 29.a.

funcionarios previstos en el artículo 76, de acuerdo con las siguientes equivalencias:

Grupo A: Subgrupo A1.

Grupo B: Subgrupo A2.

Grupo C: Subgrupo C1.

Grupo D: Subgrupo C2.

Grupo E: Agrupaciones Profesionales a que hace referencia la disposición adicional sexta.

3. Los funcionarios del Subgrupo C1 que reúnan la titulación exigida podrán promocionar al Grupo A sin necesidad de pasar por el nuevo Grupo B, de acuerdo con lo establecido en el artículo 18 de este Estatuto.

Disposición transitoria cuarta. Consolidación de empleo temporal.

1. Las Administraciones Públicas podrán efectuar convocatorias de consolidación de empleo a puestos o plazas de carácter estructural correspondientes a sus distintos cuerpos, escalas o categorías, que estén dotados presupuestariamente y se encuentren desempeñados interina o temporalmente con anterioridad a 1 de enero de 2005.

2. Los procesos selectivos garantizarán el cumplimiento de los principios de igualdad, mérito, capacidad y publicidad.

3. El contenido de las pruebas guardará relación con los procedimientos, tareas y funciones habituales de los puestos objeto de cada convocatoria.

En la fase de concurso podrá valorarse, entre otros méritos, el tiempo de servicios prestados en las Administraciones Públicas y la experiencia en los puestos de trabajo objeto de la convocatoria.

Los procesos selectivos se desarrollarán conforme a lo dispuesto en los apartados 1 y 3 del artículo 61 del presente Estatuto.

Disposición transitoria quinta. Procedimiento Electoral General.

En tanto se determine el procedimiento electoral general previsto en el artículo 39 del presente Estatuto, se mantendrán con carácter de normativa básica los siguientes artículos de la Ley 9/1987, de 12 de junio, de órganos de representación, determinación de las condiciones de trabajo y participación del personal al servicio de las Administraciones Públicas: 13.2, 13.3, 13.4, 13.5, 13.6, 15, 16, 17, 18, 19, 20, 21, 25, 26, 27, 28 y 29.



Seigarren xedapen iragankorra. Seme-alaben jaiotza, harrera edo adopzioagatiko aitatasun-baimenaren iraupena funtzionarioentzat, urriaren 6ko 9/2009 Legea indarrean jarri arte.

49. artikulua c) letran adierazitakoa alde batera utzi gabe, funtzionarioentzako aitatasun-baimenak hamabost eguneko iraupena izango du oraindik, harik eta urriaren 6ko 9/2009 Legearen 2. artikulua indarrean jartzen den arte.

Zazpigarren xedapen iragankorra. Organismo arautzaileen erreferentzia.

Harik eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legea (urriaren 1eko 40/2015) indarrean jartzen den arte, Estatuko Administrazio Orokorraren Antolamenduari eta Funtzionamenduari buruzko Legearen (apirilaren 14ko 6/1997) hamargarren xedapen gehigarriaren 1. zenbakiaren erakunde arautzaileei buruzkotzat joko dira lege honen laugarren xedapen gehigarrian jasotako aurreikuspenak.

Zortzigarren xedapen iragankorra. 84.3 artikulua aplikazioa.

Azken xedapenetatik laugarrenean aurreikusitakoarekin bat etorritik, dagokion garatzeko legea onartuta duten administrazio publikoetan aplikatu beharrekoak izango dira izendapen askeko postuari uzteko orduan nola jokatuko den 84.3 artikuluan azaltzen duten aurreikuspenak.

Xedapen indargabetzaile bakarra.

Azken xedapenetatik laugarrenaren 2. zenbakian ezarritako irismenaz, indargabetuta geratzen dira honako xedapen hauek:

a) Otsailaren 7ko 315/1964 Dekretuaz onartutako Estatuko Funtzionario Zibilen Legetik honako artikulua hauek: 1., 2., 3., 4., 5.2, 7., 29., 30., 36., 37., 38., 39.2, 40., 41., 42., 44., 47., 48., 49., 50., 59., 60., 61., 63., 64., 65., 68., 71., 76., 77., 78., 79., 80., 87., 89., 90., 91., 92., 93., 102., 104. eta 105.a.

b) Funtzio Publikoa Eraberritzeko Neurriei buruzko Legetik (abuztuaren 2ko 30/1984), honako artikulua eta xedapen hauek: 3.2.e) eta 3.2.f); 6.; 7.; 8.; 11.; 12.; 13.2, 13.3 eta 13.4; 14.4 eta 14.5; 16.; 17.; 18.1etik 18.5era; 19.1 eta 19.3; 20.1. a), 20.1.b) –lehen lerrokada–, 20.1.c), 20.1.e) eta 20.1.g) –lehen lerrokadetik laugarrenera–, eta 20.1.i), 20.2 eta 20.3; 21.; 22.1 –azken bi lerrokadak izan ezik–; 23.; 24.; 25.; 26.; 29. –5., 6. eta 7. zenbakien azken lerrokada izan ezik–; 30.3 eta 30.5; 31.; 32. eta 33.a; hirugarren xedapen gehigarriaren 2. eta 3. zenbakiak, laugarren, hamabigarren eta hamabosgarren xedapen gehigarriak, eta xedapen iragankorretatik bigarrena, zortzigarrena eta bederatzigarrena.

Disposición transitoria sexta. Duración del permiso de paternidad por el nacimiento, acogimiento o adopción de un hijo para el personal funcionario hasta la entrada en vigor de la Ley 9/2009, de 6 de octubre.

Sin perjuicio de lo indicado en el artículo 49, letra c), la duración del permiso de paternidad para el personal funcionario seguirá siendo de quince días hasta que no se produzca la entrada en vigor del artículo 2 de la Ley 9/2009, de 6 de octubre.

Disposición transitoria séptima. Referencia a los Organismos Reguladores.

Hasta que se produzca la entrada en vigor de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, las previsiones contenidas en la disposición adicional cuarta de esta ley se entenderán referidas a los organismos reguladores de la disposición adicional décima, 1 de la Ley 6/1997, de 14 de abril, de Organización y Funcionamiento de la Administración General del Estado.

Disposición transitoria octava. Aplicación del artículo 84.3.

De acuerdo con lo previsto en la disposición final cuarta, las previsiones contenidas en el artículo 84.3 en relación con la forma de proceder en los supuestos de cese en puesto de libre designación, resultarán de aplicación en las Administraciones Públicas en las que se hayan aprobado la correspondiente ley de desarrollo.

Disposición derogatoria única.

Quedan derogadas con el alcance establecido en el apartado 2 de la disposición final cuarta, las siguientes disposiciones:

a) De la Ley de Funcionarios Civiles del Estado aprobada por Decreto 315/1964, de 7 de febrero, los artículos 1, 2, 3, 4, 5.2, 7, 29, 30, 36, 37, 38, 39.2, 40, 41, 42, 44, 47, 48, 49, 50, 59, 60, 61, 63, 64, 65, 68, 71, 76, 77, 78, 79, 80, 87, 89, 90, 91, 92, 93, 102, 104 y 105.

b) De la Ley 30/1984, de 2 de agosto, de Medidas para la Reforma de la Función Pública, los artículos 3.2.e) y f); 6; 7; 8; 11; 12; 13.2, 3 y 4; 14.4 y 5; 16; 17; 18.1 a 5; 19.1 y 3; 20.1.a), b) párrafo primero, c), e) y g) en sus párrafos primero a cuarto, e i), 2 y 3; 21; 22.1 a excepción de los dos últimos párrafos; 23; 24; 25; 26; 29, a excepción del último párrafo de sus apartados 5, 6 y 7; 30.3 y 5; 31; 32; 33; disposiciones adicionales tercera.2 y 3, cuarta, duodécima y decimoquinta, disposiciones transitorias segunda, octava y novena.



c) Administrazio Publikoen zerbitzuan diharduten langileen ordezkari-organismoak, lan-baldintzak eta partaidetza arautzen dituen Legea (ekainaren 12ko 9/1987), 7. artikulua izan ezik, eta estatutu honen bosgarren xedapen iragankorrean jasotakoa salbuespenarekin.

d) Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legetik (apirilaren 2ko 7/1985), hauek: VII. tituluaren III. kapitulua.

e) Toki-araubidearen arloan indarrean diren xedapenen testu bategintetik, hau da, apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretutik, VII. tituluaren III. kapitulua.

f) Estatutu honetan ezarritakoaren aurka doazen maila bereko edo beheragoko arau guztiak.

Azken xedapenetatik lehena. Eskumen-gaikuntza.

Estatutu honen xedapenak Konstituzioaren 149.1.18. artikulua babesean eman dira, funtzionarioen estatutu-araubidearen oinarriak eratzearren; Konstituzioaren 149.1.7 artikulua babesean, lan-arloko legeriari dagokionez, eta Konstituzioaren 149.1.13 artikulua babesean, ekonomia-jardueraren plangintza orokorraren oinarri eta koordinazioari dagokienez.

Azken xedapenetatik bigarrena.

Lege honetan jasotako xedapenak autonomia-erkidego guztietan aplikatu behar dira, betiere, instituzio-sistemaren arloan dauden egoera bereziak errespetatuta, eta, Konstituzioaren esparruan, tokian tokiko autonomia-estatutuek funtzio publikoaren eta auto-antolamenduaren arloan esleituta dituzten eskumen eskusiboak eta partekatutak errespetatuta.

Azken xedapenetatik hirugarrena. Abenduaren 26ko 53/1984 Legea moldatzea (Administrazio Publikoetako langileen bateraezintasun-egoerei buruzkoa).

Aldatu egiten da 16. artikulua 1. zenbakia. Aurrerantzean, honela idatzita geratzen da:

«Funtzionarioei, behin-behineko langileei eta langile lankontratudunei ezingo zaie bateragarritasuna baimendu edo aitortu, baldin eta estatutu honetako 24. artikulua b) letraren arabera jaso ditzaketen ordainsari osagarrietan bateraezintasun-faktorea jasota badago tarifaz eta zuzendaritzakoei ordaindutakoarekiko, goimailako zuzendaritzako izaera berezia duen lan-harremanari lotutako langileak ere barnean direla.»

c) La Ley 9/1987, de 12 de junio, de órganos de representación, determinación de las condiciones de trabajo y participación del personal al servicio de las Administraciones Públicas, excepto su artículo 7 y con la excepción contemplada en la disposición transitoria quinta de este Estatuto.

d) De la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las bases del Régimen Local, el capítulo III del título VII.

e) Del Real Decreto Legislativo 781/1986, de 18 de abril, texto refundido de las disposiciones legales vigentes en materia de Régimen Local, el capítulo III del título VII.

f) Todas las normas de igual o inferior rango que contradigan o se opongan a lo dispuesto en este Estatuto.

Disposición final primera. Habilitación competencial.

Las disposiciones de este Estatuto se dictan al amparo del artículo 149.1.18.^a de la Constitución, constituyendo aquellas bases del régimen estatutario de los funcionarios; al amparo del artículo 149.1.7.^a de la Constitución, por lo que se refiere a la legislación laboral, y al amparo del artículo 149.1.13.^a de la Constitución, bases y coordinación de la planificación general de la actividad económica.

Disposición final segunda.

Las previsiones de esta ley son de aplicación a todas las comunidades autónomas respetando en todo caso las posiciones singulares en materia de sistema institucional y las competencias exclusivas y compartidas en materia de función pública y de autoorganización que les atribuyen los respectivos Estatutos de Autonomía, en el marco de la Constitución.

Disposición final tercera. Modificación de la Ley 53/1984, de 26 de diciembre, de incompatibilidades del personal al servicio de las Administraciones Públicas.

Se modifica el apartado 1 del artículo 16, que queda redactado de la siguiente forma:

«No podrá autorizarse o reconocerse compatibilidad al personal funcionario, al personal eventual y al personal laboral cuando las retribuciones complementarias que tengan derecho a percibir del apartado b) del artículo 24 del presente Estatuto incluyan el factor de incompatibilidad al retribuido por arancel y al personal directivo, incluido el sujeto a la relación laboral de carácter especial de alta dirección.»



Azken xedapenetatik laugarrena. Indarrean jartzea.

1. Nolanahi den ere, III. tituluko II. eta III. kapituluetan, 25.2 artikulua salbuespen dela, eta V. tituluko III. kapituluan ezarritakoa estatutua garatzeko emango diren Funtzio Publikoko legeak indarrean jartzen direnean hasiko da ondorioak izaten.

Estatutu honetako azken xedapenetatik hirugarrenak administrazio publiko bakoitzean izango ditu ondorioak, III. tituluaren III. kapitulua indarrean jartzen denetik hasita, estatutu hau garatzeko administrazio publikoek emango dituzten Funtzio Publikoko legeak onartutakoan.

Balitzko egoera horiek benetan gauzatu arte, gaur egun indarrean dagoen arautegiaren arabera baimendu edo ukatuko dira bateragarritasun-kasuak.

2. Funtzio Publikoko legeak eta estatutu hau garatzeko erregelamenduzko arauak onartzen diren arte, administrazio publiko bakoitzean giza baliabideak antolatzeko, planifikatzeko eta kudeatzeko indarrean diren araei eutsiko zaie, estatutu honetan ezarritakoaren aurkakorik ezartzen ez badute behintzat.

Disposición final cuarta. Entrada en vigor.

1. Lo establecido en los capítulos II y III del título III, excepto el artículo 25.2, y en el capítulo III del título V producirá efectos a partir de la entrada en vigor de las leyes de Función Pública que se dicten en desarrollo de este Estatuto.

La disposición final tercera del presente Estatuto producirá efectos en cada Administración Pública a partir de la entrada en vigor del capítulo III del título III con la aprobación de las leyes de Función Pública de las Administraciones Públicas que se dicten en desarrollo de este Estatuto.

Hasta que se hagan efectivos esos supuestos la autorización o denegación de compatibilidades continuará rigiéndose por la actual normativa.

2. Hasta que se dicten las leyes de Función Pública y las normas reglamentarias de desarrollo se mantendrán en vigor en cada Administración Pública las normas vigentes sobre ordenación, planificación y gestión de recursos humanos en tanto no se opongan a lo establecido en este Estatuto.